HERNANIKO BITERI KULTUR ETXEAN ERA ASKOTARIKO IKASTAROAK ANTOLATU ETA EMATEKO NAHIZ AUZOETAN TAILERRAK ANTOLATZEKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKI BIDEZ ESLEITZEKO ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA.

LABURPEN TAULA

A) KONTRATUAREN XEDEA

Hernaniko Biteri Kultur etxean era askotariko ikastaroak antolatu eta emateko nahiz auzoetan tailerrak antolatzeko zerbitzua.

CPV kodea: 92000000-1 Zerbitzu kulturalak

B) LIZITAZIOAREN GEHIENEKO AURREKONTUA

- Prezioa **orduko gehienez 30€+ % 21eko BEZ= 36,30 €**

Biteriko ikastaroak
30 € x 2.420 ordu urtean = 72.600 € + BEZ =87.846 €
87.846 € x 2 urte = 175.692 €

Auzoetako tailerrak
30 € x 1.040 ordu urtean= 31.200 € + BEZ = 37.752 €
37.752 € x 2 urte = 75.504 €

Balio zenbatetsia: **415.200€**

C) LIZITATZAILEAREN KAUDIMEN EKONOMIKOA, FINANTZARIOA ETA TEKNIKOA EGIAZTATZEKO AGIRIAK

Plegu honetako 11. klausulan jasotakoa

D) PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA

30 egun natural, iragarkia Europar Batasuneko Iragarkien Bulegora bidaltzen denetik kontatzen hasita.

E) ESLEIPEN-IRIZPIDEAK

Balio judizio bidez baloratuko diren irizpideak: (49 puntu arte)
- memoria teknikoa.....49 puntu arte
  a) programaren aurkezpena (35 puntu)
  b) zerbitzua aurrera eramateko hobekuntzak (14 puntu)

Automatikoki baloratuko diren irizpideak: (51 puntu arte)
- eskaintza ekonomikoa.....51 puntu arte

F) KONTRATUAREN IRAUPENA

Bi Urte (2).

G) LUZAPENAK

Beste BI (2) urtez luzagarria (2+2)
H) BEHIN-BEHINEKO BERMEA
Ez da eskatzen.
I) BEHIN BETIKO BERMEA
Esleipen prezioaren %5a, Bez kanpo

KLAUSULAK

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN HELBURUA. LOTEAK. ALDAKETAK EDO ALTERNATIBAK

1.1 Agiri honen arabera egiten den kontratuak xede hau izango du: Hernaniko Biteri Kultur etxean era askotariko ikastaroak antolatu eta emateko nahiz auzoetan tailerrak antolatzeko zerbitzua ematea, hori guztia espedientean ageri den dokumentazio teknikoaren arabera.

CPV kodea:92000000-1 Zerbitzu kulturalak

1.2. Loteak: Kontratu honen xedea lote bakarrean jaso da.

1.3 Aldaketa edo alternatibak: ez dira onartuko.

2. KONTRATUAREN IRAUPENA ETA GAUZATZEKO EPEA

Kontratuaren iraupena **BI IKASTURTEKOA (2)** izango da (2022/10/01-2024/06/21), beste BI ikasturtez luzagarria. (**2**+2).

Horiek horrela, kontratuak gehienez ere LAU (4) urteko iraupena eduki lezake.

Luzapena kontratazio organoak erabakiko du eta kontratistarentzat nahitaezkoa izango da, beti ere kontratuaren iraupen epea bukatu baino BI HILABETE lehenagotik adierazten bada.

Nolanahi ere, kontratuaren luzapena berariaz onartu beharko du kontratazio organoak.

3. KONTRATUAREN PREZIOA. BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren oinarrizko lizitazio-aurrekontua ondorengoa da:

- Prezioa **orduko gehienez 30€+ % 21eko BEZ= 36,30 €**

Biteriko ikastaroak

30 € x 2.420 ordu urtean = 72.600 € + BEZ =87.846 €
87.846 € x 2 urte = 175.692 €

Auzoetako tailerrak
30 € x 1.040 ordu urtean= 31.200 € + BEZ = 37.752 €
37.752 € x 2 urte = 75.504 €

Aurrekontuaren %80a soldatei dagokie.

Lan kostuen kalkulurako Irakaskuntza eta prestakuntza ez-arautuko hitzarmen kolektiboa hartu da kontuan.

Lan Hitzarmen horren arabera, enpresa esleipendunak subrogatu egin beharko du aurreko enpresak zenbait langileren lan kontratuekiko zeukan jarreran (10. artikulua)

Gehienezko lizitazio prezioa: Prezioa **orduko 30€+ % 21eko BEZ= 36,30 €**

Lizitatzaileek beheranzko eskaintzak egin beharko dituzte, eta inola ere ezin izango dute lehen adierazitako aurrekontua gainditu

Lizitazio aurrekontuan barne hartuta daude kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren gastu guztiak, eta baita, aplikagarri zaizkion edozein motatako zergak ere. Balio erantsiaren gaineko zergak bereizita agertu beharko du eskaintzetan, kontratuari aplikagarri zaion arautegiaren arabera tipoa eta zenbatekoa adieraziz.

Balio zenbatetsia: **415.200€**

4. FINANTZAKETA

Aurrekontuan nahikoa kreditu dago kontratuaren ondorioz udalarentzat sortzen diren obligazioei erantzuteko. Aurrekontu partida honakoak dira:
1 02 227 04 334 10
1 02 227 99 334 10

Halaber, aurrekontu gaietako organo eskudunak konpromisoa hartzen du hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jartzeko.

5. ORDAINTZEKO MODUA

Kontratuaren prezioa hilero ordainduko da dagokion faktura aurkeztu eta onartu ondoren.

Abenduaren 27ko 25/2013 Legeak xedatzen duenaren arabera, faktura elektronikoa ematera derrigortuta dauden entitateek fakturak formatu elektronikoan Gipuzkoako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoaren bidez bidali beharko dituzte, helbide honetara: https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua, Hernaniko Udala atxikita baitago, horretarako Udalaren DIR3 kodeak erabiliz:

1. Kontabilitate Bulegoa: L01200408
2. Organo Kudeatzailea: L01200408
3. Unitate Izapidetzailea: L01200408

6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratuaren ezaugarriak kontuan hartuz ez da preziorik berraztertuko.

7. BERMEAK

7.1 Behin behineko bermea: ez da eskatzen.
7.2 Behin betiko bermea: Esleipen prezioaren %5a, Bez kanpo

II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

8. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

Kontratu hau **prozedura irekia jarraituta** esleituko da, SPKLren 156 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

Kontratazio hau, SPKLren 19.1 eta 22.1.b) artikuluetan xedatutakoaren arabera, **erregulazio harmonizatuari lotutako** kontratazioa da, zerbitzuetako kontatua delako eta haren balio estimatua 215.000 eurotik gorakoa delako.

Hauek dira kontratu hau esleitzeko kontuan hartuko diren irizpideak:

Esleipenerako proposatzen diren balorazio irizpideak behar bezala justifikatuta daude, izan ere, kontratuaren xedeak ikastaroen plangintza eta programazioa eskatzen ditu, irakasleen formakuntza eta esperientziarekin batera. Enpresak ikastaroen eskaintza, metodologia eta plangintzarekin batera, giza baliabideen aurreikuspena egin beharko du, eta zerbitzua aurrera eramateko hobekuntzak ere kontuan hartuko dira.

8.1. Balio-judizioko irizpideak (2. fitxategi elektronikoa): Gehienez 49 puntu.

MEMORIA TEKNIKOA (0-49 puntu)

Aurkeztutako proposamen teknikoaren kalitatea baloratuko da. Atalean, gutxienez, 20 puntu lortu beharko dira. Baztertu egingo dira gutxieneko puntuaketa lortzen ez duten proposamenak.

Honako alderdiak baloratuko dira:

a) Programaren aurkezpena: gehienez 35 puntu

- Gai bakoitzarekin aurkeztutako programa baloratuko da,eta baita horri lotuta metodologia eta plangintza ere.
- Plangintza aurrera eramateko giza baliabideen aurreikuspena baloratuko da, irakasleen formakuntza eta esperientzia kontuan hartuz.
- Zeregin horietan enpresak duen esperientzia baloratuko da, 2 urtetik gorakoa gutxienez.

b) Zerbitzua aurrera eramateko hobekuntzak: gehienez 14 puntu

- Egungo zerbitzua nabarmen hobetuko luketen ekimenak baloratuko dira, hala nola, antolakuntzari eta metodologiari lotutakoak.

8.2. Automatikoki baloratuko diren irizpideak (3. fitxategi elektronikoa). Gehienez 51 puntu.

ESKAINTZA EKONOMIKOA (0-51 puntu)

Gehienezko lizitazio **prezioa orduko: 30€ + BEZ (6,30€). Guztira: 36,30€**

Lizitatzaileek beheranzko eskaintzak egin beharko dituzte, eta inola ere ezin izango dute lehen adierazitako aurrekontua gainditu.

Eskaintza ekonomikoarekiko balorazioa honako formula honen arabera egingo da:

- % 0 eta 15 bitarteko beherakaden kasuan, 2 puntu emango dira puntu portzentual bakoitzeko.

- 15tik gorako beherakadak izanez gero, beherakada portzentual handiena egiten duen eskaintzari emango zaio 51 puntuko gehienezko puntuazioa, eta %15tik gorako beherakada egiten duten gainerako eskaintzek bi puntuen arteko interpolazio linealaren bidez lortuko lukete puntuazioa.

9. LIZITAZIOAREN PUBLIZITATEA

Lizitazio honen iragarkia Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean eta Hernaniko Udaleko kontratatzailearen profilean argitaratuko da (**www.hernani.eus**) Euskadiko kontratazio plataforman kokatu dagoena.

10. LIZITATZAILE-ERREGISTRO OFIZIALA

Ez da eskatzen.

11. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Gaitasun juridikoa eta jardutekoa duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide honetan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, SPKLREN 71. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta.

Halaber, beren kabuz nahiz baimendutako pertsona batek ordezkaturik egin ahal izango dute hori, horretarako berariaz emandako ahalorde askietsia erabiliz. Pertsona juridikoa bertako kideren batek ordezkatzen duenean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Kasu batean nahiz bestean, arestian aipatutako kontratatzeko debekuek ordezkariari ere eragingo diote.

Gainera, enpresa lehiatzaileen jarduera nagusiak zerikusi zuzena izan behar du kontratu honen xedearekin, eta helburu hori behar bezala burutzeko behar adina giza baliabide eta baliabide material eduki behar ditu bere erakundeak.

Enpresariek, halaber, kontratu hau burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

Enpresari batzuk kontratazioan batera parte hartzeko interesatuta daudenean, aldi baterako enpresa elkartea sortu ahal izango dute horretarako. Esleipena bere alde egiten den arte ez da beharrezkoa izango elkarte hori eskritura publikoaren bidez formalizatzea. Kasu horretan, enpresariak modu solidarioan erantzungo dute Administrazioaren aurrean, eta elkartearen ordezkari edo apoderatu ahaldun bakarra izendatu beharko dute, eta horrek kontratutik eratortzen diren eskubideak gauzatzeko eta obligazioak betetzeko adinako ahalmenak izango ditu, kontratua amaitu arte.

Kaudimena egiaztatzeko bitartekoak:

1. **Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa, bitarteko hau erabilita egiaztatu beharko da:**

   Kontratatu nahi den eremuari dagokion urteko negozio bolumena enpresariaren jarduerak hasteko edo eratzeko eta eskaintzak aurkezteko datak kontuan hartuta azkeneko hiru urteetako bolumen handieneko urteari dagokiona, 50.000.- euro edo handiagokoa izan behar du.

   Lizitatzailearen edo hautagaiaren negozioen urteko bolumena bere urteko kontuen bidez, onartuak eta Merkataritza Erregistroan jasoak, egiaztatuko da, eta bestela, inskribatuta egon behar dueneko Erregistro Ofizialean jasota dauden kontuen bitartez. Merkataritza Erregistroan inskribatu gabeko enpresari indibidualek beren urte negozioen bolumena Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuen eta urteko kontuen bitartez egiaztatuko dute.

2. **Kaudimen teknikoa, bitarteko hauek erabilita egiaztatu beharko da:**

   1.- Azkeneko hiru urteetan egindako lan nagusien zerrenda, zenbatekoa, datak eta horiek norentzako egin diren, publiko edo pribatuarentzako, aipatuz.

   Egindako zerbitzuak edo lanak egiaztatuko dira organo eskudunak egin edo ontzat emandako ziurtagirien bitartez, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean; hartzailea subjektu pribatua denean, honek egindako ziurtagiri baten bitartez edo, ziurtagiri horren faltan, enpresariak eginiko aitorpenaren bitartez; bere kasuan, ziurtagiri hauek zuzenean kontratazio organoari igorriko dizkio eskumena duen agintaritzak.

   Gutxieneko baldintza izango da egikaritze handieneko urtean pilatutako urteko zenbatekoa 50.000- euroren berdina edo handiagoa izatea,kontratuaren xede diren zerbitzuen izaera bere edo antzekoetan. Enpresariak gauzatutako zerbitzuen eta kontratuaren xede diren zerbitzuen arteko loturarako irispidetzat hartuko da sailkapen azpitalde berekoak izatea, kontratua kokatuta balego arautegian ezartzen direnetako batean, eta hala ez balitz, CPV sailkapenaren barnean dagozkien kodeetan lehenengo digituen artean dagoen berdintasuna.

Aldi baterako enpresa-elkartearen kasuan, aldi baterako elkartearen kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala erabakitzeko, hura osatzen duten bakoitzarentzat egiaztatutako ezaugarriak batuko dira.

12. ESKABIDEAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedientea, baita horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, Udal honetako Kontratazio Sailean aztertu ahal izango da bulegoak jendearentzat irekita egoten diren ordutegian, egun baliagarri guztietan, lizitazio honen iragarkia **Kontratatzailearen profilean** argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, proposamenak aurkezteko epea bukatzen den arte.

Kontratazio Sailarekin harremanetan jartzeko:

Kontratazio Saila - Gudarien plaza, 1. 20120 Hernani
Tel. 943 337024 / Faxa 943 551141 / e-posta: kontratazioa@hernani.eus
Kontratatzailearen profila: www.hernani.eus

Proposamenak www.contratacion.euskadi.eus lizitazio elektronikorako plataformaren bitartez aurkeztuko dira, kontratatzailearen profilean argitaratzen den iragarkiak emandako epearen barnean.

Lizitatzaile bakoitzak ezingo du eskaintza bat baino gehiago aurkeztu. Ezingo da beste batzuekin aldi baterako batasun batean parte hartzeko eskabiderik aurkeztu, baldin eta banaka ere aurkeztu bada, eta ezingo da aldi berean batasun batean baino gehiagotan parte hartu.

Enpresa lizitatzaileak **HIRU ARTXIBO ELEKTRONIKO** aurkeztu beharko ditu.

"1" Zenbakidun artxibo elektronikoa: DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA:

Hona hemen aurkeztu beharreko agiriak:

1.- Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB)

* Prozedura behar bezala aurrera eramateko beharrezkoa denean, Kontratazio Organo edo Mahaiak egiaztagiri guztiak edo zati bat aurkezteko eskatu ahalko die lizitatzaileei, baldin eta uste badu arrazoizko zalantzak daudela adierazpenaren indarraldi edo fidagarritasunari buruz, kontratua esleitu aurretik betiere.

** Hainbat enpresa aldi baterako enpresa elkarte gisa aurkezten badira lizitazio honetara, enpresari horietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du, Pleguko I. Eranskineko eredua jarraituz.

Aurreko paragrafoak aipagai duen adierazpen horren edo horien osagarri gisa, parte hartu behar duten enpresariek aldi baterako enpresa elkartea SPKLren 69. artikuluaren 3. atalean eskatutakoaren arabera eta kontratua suntsitu arteko gutxienezko iraupenaz osatzeko konpromisoa aurkeztuko da.

Konpromiso hori hartzeko idazkia elkartea eratzen duten enpresa guztiek sinatu behareko dute, eta honako hauek adierazi beharko ditu: aldi baterako enpresa elkarte bakoitza eratuko dutenen izenak eta inguruabarrak, elkarteko kide bakoitzaren partaidetza eta kontratuaren esleipendun gertatuz gero aldi baterako enpresa elkartea formalki eratzeko konpromisoa.

“2” Zenbakidun artxibo elektronikoa: **PROPOSAMEN TEKNIKOA**

Lizitatzaileak Proposamen tekniko edo memoria bat aurkeztu beharko du; memoria horrek plegu honetako 8.1 atalaren arabera baloratu beharreko alderdiak jaso beharko ditu, eta bere edukiak nahikoa izan beharko du baloratu beharrekoen nondik norakoak neurtzeko.

* Ezingo da automatikoki baloratu beharreko daturik jaso 2. fitxategi honetan; alegia, ez da azalduko eskaintza ekonomikoari dagokion informaziorik. Halakorik gertatuko balitz, proposamena automatikoki baztertuko litzateke.

“3” Zenbakidun artxibo elektronikoa “**ESKAINTZA EKONOMIKOA - IRIZPIDE AUTOMATIKOAK**”

Proposamen-eredua, agiri honen **II. Eranskinean** jasotako ereduaren arabera, behar bezala beteta.

* Proposamenen bat ez badator bat aztertzen eta onartzen den dokumentazioarekin, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen badu, nabarmen ezberdina bada ereduaren aldean, ageriko akats bat badu zenbatekoari dagokionez edo bidera ezin bihurtzen duen akats edo ahuluneren bat badu aurkezten duen lizitatzailearen esanetan, Kontratazio Mahaiak baztertu egingo du, ebazpen arrazoitu baten bidez. Ereduko hitz batzuk aldatzea edo ez jartzea, ordea,ez da izango nahikoa proposamenak baztertzeko, haien zentzua aldatzen ez bada betiere.

** Ez da onartuko ereduaren arabera idatzi ez den proposamena ekonomikorik, edo eskaintza kontuan hartzeko kontratazio-mahaiak funtsezkotzat jotzen duena argi jakitea galarazten duen omisiorik, akatsik edo ezabaketarik daukanik.

13. EZ-OHIKO EDO NEURRIZ KANPOKO BALIOAK

Ez-ohiko edo neurriz kanpoko balioak dituzten eskaintzei dagokienez, SPKLren 149 artikuluan eta Herri Administrazioen Kontratuen Araudi Orokorraren 85. artikuluan xedatutakoa beteko da.

14. KONTRATAZIO-MAHAIA

Hernaniko Udaleko Kontratazio Mahai iraunkorra izango da.

Gainera, Mahaiak etor daitezela eskatutako udal arduradun tekniko guztiak joan daitezke bertara, aholkularitza-lanak egitera.

15. AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Bai hasierako deialdia bai gerta litezkeen aldaketak kontratugilearen perfilean argitaratuko dira (www.hernani.eus) helbidean. Dena dela, jakinarazteko beste moduren bat ere jo liteke egokitzat.

Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetan"1" zenbakidun artxibo elektronikoko dokumentazio administratiboa irekiko da.

Kontratazio-organoak edo kontratazio–mahaiak hala eskatuta, lizitatzaileek adierazpen arduratsua zuzendu beharko dute, baldin ez bada aurkeztu edo aurkeztu dena ez badago behar bezala beteta. Halako kasuetan, eragindako lizitatzaileari edo lizitatzaileei, hiru laneguneko epea emango zaie, zuzentzeko-errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Ez bada epe horretan eskatutakoa zuzentzen, kontratazio-organo edo –mahaiak ulertuko du lizitatzaileak atzera egin duela bere eskaintzan.

Kontratazio-mahaiak "2" zenbakidun artxibo elektronikoa irekiko du, balio iritzi bidez balioztatzeko irizpideen eskaintza dakarrena. Egintza horretan adieraziko du Mahaiak "1" zenbakidun artxiboan aurkeztutako dokumentazioaren kalifikazioa eta zer proposamen onartu diren, zer proposamen baztertu diren eta zergatik baztertu diren horiek

Balio iritzi bidez balioztatzeko dokumentazioa Kontratazio Organoko zerbitzu teknikoei helaraziko zaie, txostena egin dezaten.

"3" zenbakidun artxibo elektronikoa jendaurrean irekiko da eta profilean jasotako deialdian hala zehazten bada, zuzenean jarraitu ahal izango da bertan jasotako lotura bidez.

Era berean, jakinaraziko du nola balioztatu dituen balio iritzi bidez balioztatzeko esleipen irizpideak; eta, azkenik, irizpide automatikoak ireki eta irakurriko ditu.

Egintza publikoa amaitutakoan, bilkura berean, eskaintzak ebaluatuko eta sailkatuko ditu Mahaiak. Aurrez, honelakorik bada, pleguak finkatzen dituen eskakizunak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertuko ditu.

Proposamenen arteko puntuazio berdinketa egongo balitz (bi dezimaletan berdinketa) SPKLren 147.2 atalean jasotako irizpide sozialak hurrenez hurren aplikatuz erabakiko da, proposamenak aurkezteko epea bukatzen den unea kontuan hartuz.

Gero, kontratua esleitzeko proposamena aurkeztuko dio Mahaiak kontratazio-organoari, puntuaziorik onena lortzen duen hautagaiaren alde; eta zera egiaztatuko du esleipendun izateko proposatzen duen lizitatzaileari dagokionez: enpresa behar bezala eratu izana; proposamenaren sinatzaileak eskaintza egiteko ahalorde askietsia izatea; kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa izatea edo, bestela, dagokion sailkapena; eta kontratatzeko inongo debekuren pean ez egotea.

Gainera, kontratua esleitzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko eskatuko dio puntuaziorik onena ateratzen duen enpresari.

16. KONTRATUA ESLEITZEA ETA GAUZATZEA

16.1. Kontratazio Mahaiak, SPKLren 150. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, kontratazio-organoari igorriko dizkio aurkeztutako proposamenak, beheranzko hurrenkeran antolatuak, eta baztertuak edo neurriz kanpokotzat jo direnak salbu, aktarekin eta esleipen-proposamenarekin batera.

16.2 Esleipen proposamenak ez du lizitatzailearen aldeko eskubiderik sortzen. Eskubideak sortuko dira lizitatzaileak kontratua sinatu edo esleipen proposamena onartzen duenean.

16.3 Mahaiak enpresari eskatuko dio (edo ABEE osatzen duten enpresei), Lizitatzaileen Erregistroan izena emanda agertzeko obligaziorik ez badago edo datu edo dokumentuetakoren bat Erregistro horretan jasota ez badago, honako dokumentazio hau aurkeztu dezaten epe berean:

16.3.1. Lizitatzailearen nortasuna egiaztatzeko dokumentuak:

- Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, nortasuna,osaera, edo hala badagokio, aldaketa eskritura bidez egiaztatuko da, baldintza hori eskatzen den kasuetan. Bestela, osaera dokumentua, estatutuak edo sortze ekintza aurkeztu beharko du jarduera arautzen duten arauak jasota, dagokion Erregistro Ofizialean inskribatua, hala behar izanez gero. Pertsona juridikoak bakarrik izan daitezke esleipendun beren estatutuen edo sortze arauen arabera dagozkien helburuen eta jarduera esparruaren barneko prestazioak jasotzen dituzten kontratuak direnean, eta kontu horrek egiaztatuta egon behar du aurkeztutako dokumentazioan.

- Lizitatzailea pertsona fisikoa bada, Nortasun Agiri Nazionala edo baliokide den dokumentuaren bitartez.

16.3.2. Eskaintzaren sinatzailearen ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentazioa (pertsona horrek beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean jarduten duenean).

16.3.3. Eskaintzak aurkezteko fasean egindako adierazpenaren arabera kontratatzeko daukan kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzeko dokumentazioa. (11. atalaren arabera).

16.3.4 Zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioak betetzen dituela egiaztatzen duten justifikazio dokumentuak.

16.3.5. 18.atalean jasotzen diren exekuzio baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak eta 17.1 atalean jasotakoa betetzen denaren egiaztagiriak.

16.3.6 Dagokion **behin- betiko bermea** aurkeztu izanaren ziurtagiria.

16.3.7. **Laneko arriskuen prebentziorako agirian** aurreikusitakoa bete. **(IV. ERANSKINA)**

Esleipenduna enpresen batasun bat baldin bada, kontratua sinatu aurretik, Enpresen Aldi Baterako Batasun gisa legez eratu dela egiaztatu beharko du, eta horren IFK aurkeztu.

Errekerimendua adierazitako epean behar bezala bete ezean, ulertuko da lizitatzaileak kendu egin duela bere eskaintza. Kasu horretan, puntuazioan hurrengoa den hautagaiaren alde esleitzeko proposamena egingo da eta dokumentazio bera eskatu zaio.

Kontratazio organoari dagokio esleipena egitea eta ebazpen arrazoitu bidez erabakiko da; erabakia esleipendunari jakinaraziko zaio eta baita gainontzeko lizitatzaileei ere. Kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratua formalizazioarekin gauzatuko da, SPKLren 153. artikuluan jasotakoaren arabera. Kontratuaren kontra errekurtso berezia aurkezteko aukera dagoenez SPKLren 44. artikuluan jasotakoaren arabera, kontratua ezingo da formalizatu esleipenaren jakinarazpena lizitatzaileei bidali eta 15 egun baliodun igaro baino lehen.

III.- KONTRATUA BURUTZEA

17. KONTRATUA BURUTZEA

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura gauzatuko da SPKLren 197. artikuluan jasotakoaren arabera.

Kontratua betetzeko agiri honetan jasotako klausulak eta, kasuan kasu, espedienteari erantsitako zehaztapen teknikoak jarraituko dira, eta betiere, Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolpean. Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Kontratistari edo bere mendeko pertsonei lepora dakizkiekeen ekintzengatik edo ez-egiteengatik kontratuaren martxa ona arriskuan jartzen denean, Administrazioak kontratuaren martxa ona lortzeko edo berreskuratzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzea agindu dezake.

17.1. ZERBITZUARI ATXIKITU BEHARREKO BALIABIDEAK.

Enpresa esleipendunak zerbitzua gauzatzeko baliabide pertsonal zein tekniko nahikoak izan beharko ditu.

Kontratuari atxikitako langileek eskainiko diren ikastaroen gaietan formakuntza edo esperientzia egiaztatu beharko dute.

Horretaz gain, zerbitzuari atxikiko diren langileek honako betebeharrak dituzte:

- Ekipo teknikoaren hizkuntza-betebeharrak: plegu honen 18.2 klausulan jarritakoaren araberakoa.

- **Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean ez dagoenaren ziurtagiria:**

Kontratu honen xede den zerbitzuan kontratatutako eta kasuan azpikontratatutako langileei dagokienez, Adingabeen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa (Haurren Babesari buruzko uztailaren 28ko 26/2015 Legeak eta Boluntariotzari buruzko urriaren 14ko 45/2015 Legeak aldatua) betez, kontratuari atxikita dauden eta adingabeekin harremanetan dauden langile guztien sexu-delituei buruzko zigoraurrekarien ziurtagiri espezifikoak aurkeztuko dira, zigor aurrekaririk ez dutela egiaztatuz

Ordezkapen edo bestelako arrazoiren batengatik langile aldaketarik gertatuko balitz, horren berri eman beharko lioke esleipendunak kontratazio organoari, eta langile berriak baldintzak betetzen dituela egiaztatu beharko luke.

18. EXEKUZIO BALDINTZA BEREZIAK.

18.1 ESLEIPENDUNAREN LAN-EGINKIZUNAK.

Klausula honetan ezarritako betebeharrak kontratua gauzatzeko ezinbesteko baldintza berezi gisa hartuko dira, eta arau-hausteak kontratua suntsitzea ekar dezake.

18.1.a) Langileen subrogazioa:

Aplikatzekoa den lan-hitzarmenean ezarritako betebeharren arabera, kontratu honen enpresa esleipendunak subrogatu egin beharko du aurreko enpresak zenbait langileren lan-kontratuekiko zeukan jarreran.

SPKLren 130. artikuluak jasotzen duenari jarraituz, gaur egun zerbitzua ematen ari diren langileen zerrenda eta beren egungo kontratuetako baldintzak, egungo enpresa esleipendunak emandako datuak, plegu honen III Eranskinean jasotzen dira, lan kostuen ebaluaketa egin ahal izateko ondoriotarako.

Obligazio hori ezartzeak ez dakar, inola ere, enpresa esleipendunak edo hark azpikontratutako enpresek kontratatutako langileek Hernaniko Udalarekiko lan- edo funtzionariotza loturarik sortzea edo aitortzea.

Enpresa esleipendunak, kontratuaren iraunaldian, bermatu egin beharko dizkie langileei, gutxieneko, gaur egunean kontsolidatuta dituzten lan-baldintzak, batez ere, soldata, urteko lanaldia, ordutegia, baimen eta abarrei dagozkienak.

Lan Hitzarmen kolektiboen indarraldia amaitzeak, dela enpresa eremuan, dela herrialdeko hitzarmenen eremuan, ez du eragingo inolako aldaketarik esleitutako zerbitzuko langileen lan-baldintzetan.

Enpresa esleipendunaren egoera ekonomikoan izan daitezkeen balizko gorabeherek ez dute inolako eragin kaltegarririk eragingo langile horien lan-baldintzetan.

SPKL-eko 130.6 artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratistak obligazioa du subrogatutako langileei ordaindu gabeko soldatak ordaintzeko, eta baita sortutako gizarte-segurantzako kotizazioak ere, nahiz eta kontratua suntsitu eta haiek kontratista berriak subrogatu, obligazio hori ez baitagokio inolaz ere azkeneko horri. Kasu honetan, Administrazioak, aipatutako soldatak ordaindu ez direla egiaztatu ondoren, behar diren kopuruak atxikiko dizkio kontratistari, aipatutako soldata horiek bermatu daitezen, eta ez dio behin betiko fidantza itzuliko soldata horiek ordaindu direla egiaztatzen duen arte

18.1.b) Kontratisten gutxieneko lan-baldintzak.

Kontratu honen xede den zerbitzuan kontratatutako eta kasuan azpikontratatutako langileei dagokienez, esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen alorrean indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Esleipendunak Irakaskuntza eta prestakuntza ez-arautuko hitzarmen kolektiboa aplikatu beharko du.

Esleipendunak hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du, kontratua gauzatzen den denbora guztian, betiere langileari dagokion lanbide-

kategoriaren arabera, eta ordaintzekoa den soldata ezin izango da, inola ere, soldata hura baino txikiagoa izan.

Hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa esleipen-ebazpenean jasoko da eta, halaber, kontratatzailearen profilean argitaratuko da, enpresa esleipendunak adierazita badauka kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei aplikagarri zaiela halako hitzarmen kolektiboa.

Lehiatzen direnek beren buruaz eta beren borondatez onesten dute gardentasun instituzionala ematea lizitazio-, esleitze- eta gauzatze-prozesuen ondorioz sortzen diren datu guztiei, prozesu horiek bukatu arte.

Kontratua esleitu ondoren langileei aplikatuko zaizkien lan baldintzei buruz eskatutako beste edozein informazio eman beharko du esleipendunak.

18.2. HIZKUNTZA BETEBEHARRAK.

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, besteak beste, Hernaniko Udalak onartuta dituen hizkuntza irizpideak Udal barruan eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko.

Azaroaren 19ko 179/2019 dekretuak, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak, 4. ataleko 36. artikuluan jasotzen du Euskadiko toki-entitateek egiten dituzten kontratuetan kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dituztela, batetik herritarrei bermatzeko toki-erakundeei exijitzen zaizkien hizkuntza baldintza berberetan jaso ahal izatea kontratu bidezko jarduerak eta zerbitzuak eta bestetik, euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza ofizialtasunaren erregularizazioa betetzeko.

Kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriak kontratua ezinbestean euskaraz gauzatzea eskatzen du, enpresa esleipendunaren langileek zuzeneko harremana izango dutelako zerbitzu jasole euskaldunekin. Administrazioari dagokio zerbitzu jasoleen hizkuntza eskubideak bermatzea. Horrenbestez, administrazioak bermatu behar du enpresa esleipendunak zerbitzua euskaraz ere eskaintzeko gaitasuna baduela.

Hizkuntza baldintza hauek kontratuaren funtsezko betebehar izaera dute, eta horiek urratzeak zigor sistema aplikatzea ekar lezake edo kontratua bertan behera uztea Sektore Publikoko Kontratuaren Legeari jarraituz.

a) Euskara gaitasunari buruz

a.1) Langile berrien euskara gaitasunari buruz

Enpresa esleipendunak herritarrekin zuzeneko harremanean lana burutzeko izendatzen dituen langileek gai izan beharko dute beren eginkizunak bi hizkuntza ofizialetan egiteko, eta esleipena egingo bada, nahitaez egiaztatu beharko dute arduradunak Europako Erreferentzia Markoaren C1 maila edo parekoa, eta begiraleek, Europako Erreferentzia Markoaren B2 maila (ahozkoan) edo parekoa.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du kontratua esleitzea proposatzen den enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna, horretarako egingo zaion eskakizunean emandako epean.

Egiaztapena nola:

-Euskara gaitasunaren titulu bitartez

-Euskaltegiratuta dauden pertsonen kasuan, euskaltegiak egindako agiri bitartez.

-Euskal Autonomia Erkidegoko beste erakunde publiko batek egindako mailaketa proban ateratako emaitza egiaztatzen duen agiri bitartez

-Euskara maila egiaztatzetik salbuetsita dagoela jasotzen duen agiriaren bitartez: Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren 2., 3. eta 4. artikuluetan eta otsailaren 26ko 28/2019 Dekretuaren eranskinean jasota dagoenaren baitan.

-Hernaniko Udalean 2006az geroztik egindako mailaketa probaren batean ateratako emaitza hartuko da kontuan.

Kontratua esleitzea proposatzen den enpresako langileek kontratazio honetarako eskatutako euskara gaitasuna egiaztatua ez badute, mailaketa-probak egingo dizkie Udalak. Azterketak Udalak zehaztutako egunean, orduan eta lekuan egingo dira.

Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatuko ditu dagozkion azterketak langile horien euskara maila neurtzeko. Horretarako Euskara Zerbitzua harremanetan jarriko da enpresarekin. Enpresak bere gain hartuko du mailaketa proba horiek egiteak sor dezakeen kostua.

Euskara Zerbitzuak txostena egin arte ezingo du Kontratazio Mahaiak kontratazioan aurrera egin.

Kontratua esleitzea proposatzen den enpresak zerbitzu honetarako eskatutako euskara gaitasuna egiaztatzen ez badu, ezin izango da esleipenduna izan. Horrelakorik gertatuz gero, Udalak lehiaketaren zerrendan 2. geratu den lizitatzailearen euskara gaitasuna baloratuko du. Eta horrela hurrenez hurren.

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago enpresa esleipendunak langileren bat aldatuz gero edo zerbitzua emateko pertsona berririk kontratatzeko asmorik izanez gero, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute. Langile aldaketa egiten den guztietan enpresak Udalari jakinaraziko dizkio langile berriaren izen-abizenak eta horrek egiaztatutako euskara maila. Enpresak Udalaren aldeko txostena beharko du langile berria lanean hasi aurretik.

a.2) Subrogatuta dauden langileen euskara gaitasunari buruz

Subrogazio kasuetan eta behin adjudikazioa eginda, enpresa esleipendunak Udalari aurkeztuko dio zerbitzua emango duten langile subrogatuen euskara gaitasunaren inguruko informazioa, esleipen-kontratua sinatu eta hilabeteko epean gehienez ere. Bertan zehaztuko ditu subrogatuta dauden langileen izen-abizenak eta bakoitzak egiaztatua duen euskara maila. Langileek euskara gaitasuna egiaztatzen duen agiririk ez balute, mailaketa probak egingo dizkie Udalak. Horretarako enpresa jarriko da harremanetan Euskara Zerbitzuarekin, honek mailaketa proba antolatzeko. Azterketa Udalak zehaztutako egunean, orduan eta lekuan egingo da. Enpresak bere gain hartuko du mailaketa proba hori egiteak sor dezakeen kostua. Ondoren, Euskara Zerbitzuak langileen euskara gaitasunaren inguruko txostena egingo du.

Zerbitzu hau emateko eskatutako euskara gaitasuna ez balute langileek, enpresa esleipendunak langile horiek euskalduntzeko plangintza prestatu eta aurkeztu beharko dio Udalari esleipena egin denetik bi hilabeteko epean gehienez ere. Enpresa esleipendunak euskalduntzeko plangintza prestatzeko argibideak behar izanez gero, Euskara Zerbitzuarekin jarriko da harremanetan. Enpresa esleipendunak aurkeztutako plangintza martxan jarri aurretik, ezinbestekoa izango da Udalaren aldeko txostena. Plangintza horren jarraipena ere egingo du Udalak. Enpresa esleipendunak hartuko du bere gain plangintza horren kostua.

b) Zerbitzuan erabiliko den hizkuntzari buruz

Enpresa esleipendunak, zerbitzua ematerakoan, Udalak bere hizkuntzazko jarduera arautzeko dituen planen arabera jokatuko du.

1) Hizkuntza paisaia

Zerbitzua ematean enpresa esleipendunak jartzen dituen errotulu, seinale, ohar, kartel eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz idatziko dira ondorengo kasu hauetan:

- Hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean.
- Mezuak piktograma bidez lagundurik direnean eta haren bitartez ulergarriak direnean.
- Oso zabalduak dauden hitzetan (udaletxea, musika eskola, kultur etxea ...).

Aurreko hiru kasuak ezinezkoak direnean, ele bitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere Udalarekin aldez aurretik adostuta.

2) Enpresa esleipendunak emango dituen ikastaroen hizkuntzari buruz

Enpresa esleipendunak Udalak zehaztutako hizkuntzan emango ditu ikastaroak.

- 16 urtetik beherako gazteei zuzendutako ikastaro guztiak euskaraz izango dira, eta ikasleen esku jartzen den dokumentazioa ere euskaraz izango da.

- 16 urtetik gorakoentzako ikastaroen hizkuntza

Ikastaro batzuk euskaraz eskainiko dira. Horietan ikasleekiko ahozko nahiz idatzizko harremana euskaraz izango da.
Beste ikastaro batzuk hizkuntza ezaugarririk gabe eskainiko dira. Bigarren hauetan, honela jokatuko da:

a) Ikasle guztiek azalpenak euskaraz ulertzeko gutxieneko maila badute, ikastaroa euskaraz emango da.

b) Talde berean euskaraz ulertzen dutenak eta ulertzen ez dutenak badaude, euskaraz ulertzen duten ikasleen kopuruaren baitan ikastaroan euskararen presentzia handiagoa ala txikiagoa izango da; betiere Udalak markatutako irizpideei jarraikiz emango da ikastaroa.

Bestalde, ikastaroetako euskararen inguruko erabilera datuak jasoko ditu enpresa esleipendunak, Udalak markatutako epeetan eta moduan.

Hizkuntzen kudeaketa hobetzeko Udalak antola ditzakeen ikastaro edo saioetara joan egin beharko dute enpresa esleipenduneko begiraleek. Enpresa esleipendunak bere gain hartuko ditu begiraleek ikastaro edo saio horietan eman ditzaketen orduak eta sor daitezkeen gastuak.

3) Enpresaren eta Udalaren arteko harreman hizkuntzari buruz

Enpresa esleipendunaren eta Udalaren arteko ahozko —bilerak, kontsultak...— nahiz idatzizko harremanak —fakturak, txostenak...— Udalaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira, hau da, euskaraz. Ondorioz, nahitaezkoa izango da enpresa esleipendunak Udalarekin harremanetan aritzeko izendatuko duen pertsona elebiduna izatea.

c) Hizkuntza baldintzen jarraipenari eta ez betetzeari buruz

Kontratazioa sustatu duen udal lansailaren arduradunak jarraipena egingo du zerbitzu hau emateko eskatu diren hizkuntza baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

Hizkuntza baldintza horiek urratzeak zigor sistema aplikatzea ekar lezake, Sektore Publikoko Legearen 192. artikuluari jarraituz. Behin eta berriz urratzeak, berriz,

kontratua bertan behera uztea ekar lezake, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211. artikuluari jarraituz.

19. KONTRATUA BETEARAZTERAKOAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK KONTRATISTAK DAUKAN ERANTZUKIZUNA

Enpresa esleipendunaren ardura da kontratuko lanen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, SPKLren 196.artikuluan xedatutakoaren arabera.

20. KONTRATUA ALDATZEA

Behin kontratua formalizatuta, herri onurako arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal izango du kontratua Udalak, klausula honetan ezarritako kasuetan (1) edo Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 205. artikuluan ezarritako kasuetan eta moduan (2).

Aldaketak kontratazio organoak onartu beharko ditu, eta prozedurari dagokionez, SPKLren 191 eta 207 artikuluetan ezarritakoa jarraituko da, eta 153 artikuluaren arabera dokumentu batean formalizatu beharko da.

1.-Aurreikusitako aldaketak:

SPKLren 204 artikuluan araututakoarekin bat etorriz, kontratu hau aldatzeko baldintza izango dira ondorengoak:

- Eman beharreko ikastaroen kopurua handitzea edo gutxitzea matrikulazio datuetara egokitzeko eta ikastaro-eskaintzei egokitzeko.

Aldaketa horrek zerbitzuaren ordutegiak eta maiztasunak gehitzea edo gutxitzea eragin dezake eta, bestetik, horretarako beharrezkoak diren baliabideak (giza baliabideak eta bitarteko materialak) gehitzea edo gutxitzea ekarriko du.

Zehaztutako kasu horietan oinarrituta, kontratuak bere aurrekontuaren % 20rainoko aldaketak eduki ahal izango ditu.

Aldaketek ezin dute kontratuan aurreikusi gabe dauden banakako prezio berriak ezartzea ekarri.

Kasu honetan, kontratazio organoak erabakitako aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat.

2.- Aurreikusi gabeko kontratu aldaketak:

Soilik 205 artikuluan zehaztutako kasuetan eta bertan ezarritako mugekin eman ahal izango dira.

Kasu honetan, kontratistarentzat derrigorrezkoak izango dira, soilik, %20ko muga gainditzen ez badute.

21. BERME EPEA

kontratuaren izaeragatik ez da berme eperik ezartzen.

22. ZIGORRAK KONTRATISTARI, EZ BETETZEAGATIK

Oso larriak, larriak edo arinak izango dira kontratistak kontratua gauzatzen duen bitartean egiten dituen arau-hausteak.

a) Oso arau hauste larriak izango dira honako hauek:

- Zehaztutako epean zerbitzua ematen ez hastea, edo zerbitzua emateari uztea, ezinbesteko arrazoiak daudenean izan ezik.
- Udalaren baimen espresurik gabe, zerbitzuak osorik edo neurri batean beste bati utzi, alokatu edo eskualdatzea.
- Kultura Teknikariak edo Kultura Delegatuak zerbitzuan aurkitu diren zenbait arazoren berri eman eta berehala ez esku-hartzea.
- Zerbitzua akatsez betea eta irregularra izatea.
- Kultura Teknikariaren edo Kultura Delegatuaren agindu ofizialak ez betetzea, horretarako arrazoirik izan gabe.
- Ezarritako edozein baldintza ez betetzea horretarako inolako arrazoirik izan gabe, eta horien ondorio izan daitezkeen ekintzen kalterik gabe.
- Bi arau hauste larri edo gehiago egitea.

b) Arau hauste larriak izango dira:

- Atzerapen ez sistematikoa, lanak egiterakoan.
- Kontrataturiko langileen eskura udalak jarritako baliabide materialak eta azpiegiturak behar bezala ez erabiltzea.
- Kontratistarentzat lan egiten dutenek herritarrekin izan ditzaketen gorabeherak, bai tratua egokia ez delako, bai zerbitzua ez delako behar bezala eman.
- Behin eta berriz akats arinak egitea.

c) Arau hauste arinak izango dira aurreko horietan aurreikusi ez diren gainerako guztiak eta, nolabait ere, baldintza plegu honetan zehaztutako baldintzen kalterako direnean, zerbitzuan kalte larririk eragiten ez badute.

Honako zehapen hauek jarri ahal izango zaizkio kontratistari:

a) Arau hauste oso larriengatik: 601tik 1.000€-ra.
b)Arau hauste larriengatik: 301tik 600€ra
c) Arau hauste arinengatik: 100tik 300€ra.

Hala eta guztiz ere, oso arau hauste larriak direnean, Udalak erabaki ahal izango du zehapenak jarriko dituen, klausula honetan aurreikusitakoaren arabera, edo kontratua suntsitzeko dagokion espedientea hasiko duen.

Klausula honetan aurreikusi ez diren gaietarako SPKLren 192tik 195 artikuluan jasotakoak aplikatuko dira.

23. AZPIKONTRATAZIOA ETA LAGAPENA

Udalak berariaz baimendu ezean, esleipendunak ezingo dizkio kontratuaren eskubideak eta betebeharrak beste pertsona edo erakunderen bati laga edo eskualdatu.

Halaber, aurretik Udalak espresuki baimendu ezean, esleipendunak ezingo dio lanen zati bat hirugarren bati azpikontratatu.

24. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak izango dira SPKLren 211. artikuluan aurreikusitakoak eta Lege bereko 313.artikuluan bereziki zerbitzu kontratuetarako jasotakoak.

Era berean, kontratua suntsitzeko arrazoi izango da pleguetako 18 klausulan ezarritako kontratua gauzatzeko baldintza bereziren bat ez betetzea.

Nolanahi ere, kontratistak Udalari sortutako kalteak ordaindu beharko dizkio.

25. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK

Kontratu administratiboak interpretatzeko eta kontratu horiek betetzean sortzen diren zalantzak erabakitzeko prerrogatiba du kontratazio-organoak. Era berean, interes publikoko arrazoiengatik, kontratuak aldatu, haiek suntsitzea erabaki eta suntsitze horren ondorioak zehaztu ahal izango ditu, SPKLan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuan zehaztutako mugak, baldintzak eta ondorioak kontuan harturik.

IV. IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

26. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, bereziki, Azaroaren 8ko, 9/2017 Legeak Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, eta, halaber, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsiak, ezarritako arauak bete beharko dira, baita herri-administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerakoak ere.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

27. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honek berarekin izaera pertsonaleko datuetan sartzea dakarrenean, enpresa kontratistak SPKLaren Hogeita Bosgarren Xedapen Gehigarrian finkatutako betebeharrak bete beharko ditu, Datu Pertsonalen Babesari buruzko 2018/1725 Europar Erregelamenduari eta Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Legeari dagokienez.

Enpresa esleipendunak konfidentzialtasun kontratu bat sinatu beharko du, kontratu nagusiarekin batera.

28. JURISDIKZIO ESKUDUNA. ERREKURTSO BEREZIA.

Kontratutik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren mende egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek hala nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorriz.

Kontratuaren kontra errekurtso berezia aurkezteko aukera dago SPKLren 44. artikuluan jasotakoaren arabera, eta bertan jasotzen diren egintzen kontra.

Hernanin, 2022ko maiatza.

II. ERANSKINA: PROPOSAMEN EREDUA
ANEXO II: MODELO DE PROPOSICIÓN ECONÓMICA

LIZITATZAILEA / LICITADOR	***I.F.K. - I.F.Z.*** / C.I.F. - N.I.F.	
HELBIDEA / DIRECCIÓN POSTAL	***HERRIA (K.P.)*** / *MUNICIPIO (C.P.)*	***TELEF.***
KONTRATUAREN XEDEA / OBJETO DEL CONTRATO	***ESPED. KODEA*** / CÓDIGO EXPEDIENTE	

Behean sinatzen duenak, jarduteko gaitasun juridiko osoaren jabe dela, eta bere izenean edo lizitatzailearen izenean,

ADIERAZTEN DU*:*

I.-Ezagutzen dituela Proiektu Teknikoa bere edukiarekin, Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiria eta kontratu hau arautuko duen gainerako dokumentazioa ere, eta berariaz bere osotasunean onartzen dituela inolako salbuespenik gabe beteko dituelarik.

II. Ordezkatzen duen enpresak kontratu hau burutzeko indarrean dagoen araudiak eskatutako betebehar eta baldintza guztiak betetzendituela.

III.- Esleipenduna gertatuz gero, aipatutako lanak onartutako Baldintza Agirian zehazten diren baldintzen arabera eta espedientean zehaztutako gainerako aukerako baldintzen arabera beteko dituela beti.

IV.- Lanaren, zergaren eta Gizarte Segurantzaren alorretan legeek edo araudiek xedatzen dutena betetzera behartzen dela.

V.- Berariaz adierazten du, eskaintza egiteko garaian, kontuan hartu dituela enplegua babesteko alorrean, lan baldintzen eta laneko arriskuak prebenitzeko alorrean indarrean dauden xedapenetatik sortutako betebeharrak, bereziki Gipuzkoan aplikatzekoak diren jarduera-sektore haietako Hitzarmen Kolektiboak eta ingurumena babestekoak direnak.

El abajo firmante en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, actuando en nombre propio o en representación del licitador,

DECLARA

I.- Que conoce el Proyecto Técnico con su contenido, el Pliego de Cláusulas Económico-Administrativas Particulares y demás documentación que ha de regir el presente contrato, que expresamente asume y acata en su totalidad, sin salvedad alguna.

II.- Que la empresa a la que representa cumple con todos los requisitos y obligaciones exigidos por la normativa vigente para la realización del presente contrato.

III.- Que, en caso de resultar adjudicataria, realizará los citados trabajos con sujeción en todo caso a los requisitos y condiciones dispuestos en el Pliego aprobado, así como al resto de las condiciones facultativas fijadas en el expediente.

IV.- Que se obliga al cumplimiento de lo legislado o reglamentado en materia laboral, tributaria y de Seguridad Social.

V.- Que manifiesta expresamente haber tenido en cuenta en la elaboración de la oferta las obligaciones derivadas de las disposiciones vigentes en materia de protección del empleo, condiciones de trabajo y prevención de riesgos laborales, en particular los convenios colectivos de aquellos sectores de actividad que resulten de aplicación en Gipuzkoa, y de protección del medio ambiente.

Ondorio horrekin, adierazten du, esleipendun izanezgero, kontratuaren xede den jarduera burutuko duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa ondorengoa dela:.....(.....Kodea).

Era berean, kontratua esleitu ondoren, aipatu langile horiei aplikatuko zaizkien lan baldintzen inguruan eskatuko zaion informazio oro kontratazio organoari ematera behartzen dela.

VI.- Esandako guztiaren arabera, konpromisoa hartzen duela zehaztutako lan horiek egiteko, ... euroko orduko prezioan (BEZa barne), honela banakatuta:

- Prezioa orduko: ..... euro.
- BEZ aplikagarria (%.....): ..... euro.

Esandako prezioan kontzeptu guztiak barruan daudela ulertu behar da, eta hor: zergak, gastuak, arlo fiskaleko edozein tasa eta ordainketak sartzen dira, baita kontratistaren etekin industriala ere.

A estos efectos, señala que el convenio colectivo de aplicación a los trabajadores y trabajadoras que realicen la actividad objeto del contrato, en caso de resultar adjudicataria, es el siguiente:..... (Código....)

Igualmente, se obliga a facilitar al órgano de contratación cuanta información se requiera sobre las condiciones de trabajo que, una vez adjudicado el contrato, se apliquen efectivamente a esos trabajadores y trabajadoras.

VI.- Que se compromete, conforme a todo lo dicho, ejecutar los trabajos referenciados por un precio total de..... .....euros por hora (IVA incluido), desglosado de la siguiente manera:

-Precio por hora: ..... euros.
-IVA aplicable (.....%): ..... euros.

En el precio indicado deben entenderse comprendidos todos los conceptos incluyendo los impuestos, gastos, tasas y arbitrios de cualquier esfera fiscal al igual que el beneficio industrial del contratista.

IZEN-ABIZENAK / **NOMBRE Y APELLIDOS**		***SINADURA*** / **FIRMA**
N.A.N. / **D.N.I.**	***DATA*** / **FECHA**	

III. Eranskina
subrogazio datuak

Egun zerbitzua ematen ari den enpresak helarazi dituen datuak dira honakoak. Lizitazioa publikatzeko garaian zerbitzuari lotuta dauden langileei dagokiena.

Nombre	Fecha nac	Categoria	Antgüedad	Ctto	Jorn sem	Tipo cott	Fecha vcto	Sal bruto anual	Convenio aplicable
1	02/05/2001	PROFESOR	01/10/2019	300	7,81	Fijo/Disc	MAYO/ JUNIO	1.160,00	Enseñanza y formación no reglada
2	25/12/1967	PROFESOR	03/10/2016	289	50,78	Indefinido		7.920,00	Enseñanza y formación no reglada
3	17/04/1959	PROFESOR	03/10/2005	289	27,34	Indefinido		3.780,00	Enseñanza y formación no reglada
4	22/05/1991	PROFESOR	01/10/2019	300	7,81	Fijo/Disc	MAYO/ JUNIO	1.297,80	Enseñanza y formación no reglada
5	06/01/1971	PROFESOR	01/10/2019	300	11,72	Fijo/Disc	MAYO/ JUNIO	2.130,00	Enseñanza y formación no reglada
6	14/01/1987	PROFESOR	01/10/2018	300	27,34	Fijo/Disc	MAYO/ JUNIO	4.440,00	Enseñanza y formación no reglada
7	05/02/1968	PROFESOR	01/10/2019	300	5,86	Fijo/Disc	MAYO/ JUNIO	990	Enseñanza y formación no reglada
8	24/11/1955	PROFESOR	01/10/2010	289	54,7			10.30,00	Enseñanza y formación no reglada
9	12/05/1976	PROFESOR	01/10/2018	300	35,16	Fijo/Disc	MAYO/ JUNIO	5.510,00	Enseñanza y formación no reglada
10	27/02/1998	PROFESOR	10/01/2022	300	3,91	Fijo/Disc	MAYO/ JUNIO	700	Enseñanza y formación no reglada
11	27/02/1979	PROFESOR	01/10/2021	300	7,81	Fijo/Disc	MAYO/ JUNIO	1.480,00	Enseñanza y formación no reglada
12	11/04/1968	PROFESOR	01/10/2018	300	15,63	Fijo/Disc	MAYO/ JUNIO	2.200,00	Enseñanza y formación no reglada
13	01/10/1977	PROFESOR	01/10/2018	300	19,53	Fijo/Disc	MAYO/ JUNIO	3.300,00	Enseñanza y formación no reglada
14	01/10/1977	PROFESOR	01/10/2021	300	9,77	Fijo/Disc	MAYO/ JUNIO	1.230,00	Enseñanza y formación no reglada
15	01/08/1969	PROFESOR	01/10/2018	300	27,34	Fijo/Disc	MAYO/ JUNIO	3.780,00	Enseñanza y formación no reglada
16	20/01/1976	PROFESOR	01/10/2018	300	58,59	Fijo/Disc	MAYO/ JUNIO	9.360,00	Enseñanza y formación no reglada
17	16/10/1957	PROFESOR	01/10/2018	300	39,06	Fijo/Disc	MAYO/ JUNIO	6.400,00	Enseñanza y formación no reglada
18	10/10/1976	PROFESOR	01/10/2018	300	13,67	Fijo/Disc	MAYO/ JUNIO	1.780,00	Enseñanza y formación no reglada

IV. Eranskina

LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ALORREAN ENPRESENTZAKO BALDINTZEN ORRIAK ZERBITZUAK KONTRATATZEKO

Prozedura irekiaren, prozedura murriztuaren, prozedura negoziatuaren eta elkarrizketa lehiakorraren bidez esleitzen diren zerbitzu guztietan eta beren jarduera Hernaniko Udalaren zentroetan edo Hernaniko Udalaren kontura jarduten dutenean beste zentro batzuetan kontratistek Laneko Arriskuen Prebentzioaren alorrean bete behar dituzten obligazioak ezartzea izango da BALDINTZA ORRI hauen helburua.

Baldintza ORRI hauek administrazio-kontratuari gehituko zaizkio eta bi alderdiek sinatu beharko dute orrialde horietako bakoitza.

Enpresa kontratatzaileak laneko, gizarte segurantzaren eta laneko arriskuen prebentzioren alorrean indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, eta bereziki:

1.- Gauzatu beharreko prestazioak lan-ordenantzarekin edo hitzarmen kolektiboarekin lotura dutenean, dagozkion lan ordenantzetako eta hitzarmen kolektiboko xedapenak betetzera behartuta egongo da enpresa kontratatzailea.
2.- Laneko arriskuen prebentzioan nahitaez betebeharrekoak edo beharrezkoak izango diren behar hainbat neurri hartu beharko ditu enpresa kontratatzaileak, langileen bizitzan, osotasunean eta osasunean eragina izan dezaketen arriskuen prebentzio egoki bati begira.
3.- Halaber, indarrean dagoen araudiak laneko arriskuen prebentzioaren alorrean ezarri dituen obligazioak ere bete beharko ditu.

I. JAKINARAZI BEHAR IZATEA.

Eskaintzaren fasea

Kontratistak bere eskaintzan nahitaez jakinarazi behar duena:

1.1.- Sektore publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan jasotakoaren arabera Administrazioarekin kontratatzeko inolako debekutan sartuta ez egotearen ardurapeko adierazpena.
1.2.- Honakoaren zinpeko adierazpena egingo du:
Laneko Arriskuen Prebentziorako Legean eta hori garatzeko xedapenetan jasotakoaren araberako Prebentzio Plan bat izatea.
Langile horiek Hernaniko Udalaren instalazioetan beteko dituzten lanpostuetan Arriskuen Ebaluazioa egina izatea, eta arrisku horiek eragozteko beharrezkoak diren prebentziorako eta babeserako neurriak izatea.
Informazioa emango duela Hernaniko Udaleko langileek edo parte hartzen duten beste enpresa batzuetako langileek gure instalazioetan egin behar izango dituzten jardueretan edo lanetan izan ditzaketen arriskuei buruz.
Hernaniko Udalean jarduerak gauzatuko dituzten langileei bere lanpostuko arrisku orokorrei eta bereziei buruzko informazioa emango diela enpresak.
Jarduera horiek burutuko dituzten langileei lantokiko arriskuei eta prebentzio-neurriei buruz Hernaniko Udalak emandako informazioa emango diela enpresak, eta baita larrialdi kasuetan gauzatu beharreko jarduketei buruzkoa ere.
Lanak gauzatzeko beharrezkoak diren kolektiboki babesteko neurriak eta Banaka Babesteko Ekipoak (BBE) emango dizkiela enpresak bere langileei, eta baita behar bezala ziurtatutako lan-ekipoak eta produktuak ere, eta hori guztia indarrean dauden legeek eskatzen dutena betez.
Kontratistak bere gain hartutako lanak gauzatuko dituzten langile guztiek

horretarako beharrezkoa den prestakuntza badutela, eta behar izanez gero, eguneratutako ziurtagiri ofizialak dituztela horretarako

Enpresak bere langileen Osasun Zainketa egin duela, ezarrita dauden osasun-protokoloen arabera eta arrisku berezien alorreko araudia betez.

Hernaniko Udalean lan egiteko prebentzio-baliabideak beharrezko denean izendatuko dituela enpresak, Laneko Arriskuen Prebentziorako 31/1995 Legearen eta 39/1997 EDaren arau-esparrua aldatzen duen 54/203 Legean eta 604/2006 EDren bidez egindako ondorengo aldaketan ezarritakoaren arabera.

Hernaniko Udalaren instalazioetan lan egiten duen bere langileren baten edo bertan dagoen beste edozeinen osasunean kaltea eragin duen edo eragin dezakeen gertaerari eta/edo istripuri buruzko informazioa emango dio enpresak gutun baten bidez Hernaniko Udalari.

Enpresa kontratatzaileak azpikontratazioak egiten baditu, horiek ere obligazio berberak izango dituztela, eta enpresa kontratatzailearen ardura izango dela dokumentazioa biltzea eta hori behar bezala bete dadin zaintzea.

1.3.- Enpresak laneko arriskuen prebentziorako onartu duen kudeaketa-sistema: Bere Prebentzio Zerbitzua, Kanpoko Prebentzio Zerbitzuak (adierazi zein) edo Sistema Mistoa (Itun partziala Kanpoko Prebentzio zerbitzuarekin + jarduera batzuk bere gain hartzea izendatutako langile baten bidez edo bere teknikariaren bidez)

2.- Exekuzio-fasea

2.1.- Jarduera hasi baino lehen

Lan egin behar duen lekuan bere jarduerarekin hasi baino lehen, kontratistak idatziz azaldu beharko dio Hernaniko Udalari:
Zerbitzua gauzatzeko kontratistak enpresan izendatu duen arduradunaren izena, eta baita Prebentzioko Ordezkariena eta egin beharreko lanetan parte hartuko duten langileen izenen zerrenda ere, azpikontratatutakoenak barne, horien izenak eta abizenak, nortasun agiri nazionala eta prestakuntza profesionala adieraziz.
Arriskuen ebaluazioarekin lotura duten prebentzio-baliabideak izan behar dituzten lanpostuen eta/edo jardueren zerrenda.
Kontratua gauzatzeko lanetan parte hartuko duten langile guztiek, hala enpresakoek nola kanpokoek, lanean hasi direnean arrisku bereziei, babeserako neurriei eta larrialdietako neurriei buruzko informazioa jaso dutela egiaztatzen duen agiria, eta baita bere jardueran eragina izango duten arriskuei buruzko beharrezko prestakuntza jaso izanari buruzkoa ere.

2.2.- Zerbitzua gauzatzeko fasean

Lanak gauzatzen diren aldi horretan, kontratistak enpresan duen arduradunak kontrataren ardura duen arduradunari enpresaren aldetik idatziz jakinarazi beharko dio:
Kontratak duen jarduketa horren barruan gertatzen den edozein aldaketa esanguratsu edo zerbitzua gauzatzerakoan bere langileen edo lana gauzatzen ari den zentroko langileen segurtasunean eta osasunean eragina izan dezakeen edozein gertaera. Aldaketa horrek, Kontrataren eta enpresaren langileen segurtasunaren eta osasunaren alorrean ekarriko dituen beharrak adieraziko dira idatzian.

Kontratako langileren batek izaten duen edozein istripu. Horren berri emateko idatzian, istripua zergatik gertatu den, izan diren lesioak, zergatiak eta horri buruz hartu diren neurriak azalduko dira.

II. OBRA EDO ZERBITZUA BURUTU BITARTEAN KONTRATEK IZANGO DUTEN JARDUNA.

1. Kontratistak lan batzuk egiteko izendatu dituen langile guztiek horretarako egokia den kualifikazioa eduki beharko dute, eta behar bezala eguneratutako ziurtagiri ofizialen jabe izan behar dute, eta halaber, heziketa eta jarraibide berezi batzuk jaso behar dituzte Hernaniko Udalarentzat egingo dituzten lanekin loturik, bereziki segurtasunarekin eta osasunarekin loturiko gai guztietan.
2. Lan arloko agintaritzak Hernaniko Udalari zigorren bat ezartzen baldin badio enpresa *"kontratistako"* langileek prebentzio-neurriak bete ez dituztelako, Hernaniko Udalak eskubidea izango du enpresa *"kontratistaren"* aurka bidezkoak diren lege-ekintzak abiarazteko.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa hala izanik ere, enpresa *"kontratista"* horrek prebentzio-neurriak betetzen ez baditu, Hernaniko Udalak zigor ekonomiko bat ezarri ahal izango dio enpresa *"kontratistari"*, gehienez ere kontratako aurrekontuaren % 5aren baliokidea izango den zenbateko batez. Enpresa *"kontratistak"* neurri horiek behin eta berriz betetzen ez baditu, Hernaniko Udalak ahalmena izango du abian diren ordainketak eta ziurtagiriak atxikitzeko, eta halaber, kontratu hori suntsiarazteko, eta enpresa *"kontratistak"* ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango. Horrez gain, Hernaniko Udalak ez betetze horrek eragin ahal izan dituen kalteak eta galerak erreklamatu ahal izango dizkio enpresa *"kontratistari"*.

3. Kontratatutako zerbitzua gauzatzeko orduan, babeserako nahiz lanak burutzeko kontratistak erabiltzen dituen material eta ekipo guztiek –bai norbanakoenak eta bai kolektiboak ere– laneko arriskuen prebentzioaren alorrean indarrean dagoen araudia bete beharko dute, eta Hernaniko Udalaren esku egon beharko dute araudi hori betetzen dela egiaztatzen duten ziurtagiriek.
4. Hernaniko Udalaren zentro batean edo Hernaniko Udalaren kontura lan egiten duten langile guztiek beren lanerako egokiak diren arropak eraman beharko dituzte, betiere garbitasun eta txukuntasun-baldintza egokietan.

5. Hernaniko Udalaren zentro batean edo Hernaniko Udalaren kontura lan egiten duten langile guztiak argi eta garbi identifikatuta egongo dira, baita erabiltzen dituzten ibilgailu eta ekipoak ere, enpresan dauden bitartean.

6. Gizarte Segurantzari, Laneko Mutualitateari eta Laneko Istripuen Aseguruei

dagozkien kuotak eguneratuta eduki behar dituzte.

Langile guztiek jakingo dute:

Zer izen duen beren enpresak kontratatua duen Lan Istripuetarako eta Gaixotasun Profesionaletarako Mutuak.
Zein osasun-zentrotara joan behar duten, horretarako premia izanez gero

ZINPEKO ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak, bere helbidea ..... herria eta ..... kalea izanik, eta bere NA zk. ..... delarik, ... enpresaren ordezkari eta/edo administrazio-arduradun gisa, sozietate horren helbidea ..... izanik eta bere IFK zenbakia .....

HAUXE AITORTZEN DUT:

..... enpresak bere eginkizunetan aktiboki barneratu ditu laneko arriskuen prebentziorako egungo irizpideak, eta horrez gain, Prebentzio Plan bat du Laneko Arriskuen Prebentziorako Legean eta hori garatzen duten xedapenetan ezarritakoarekin bat datorrena.

..... enpresak Hernaniko Udalarentzat jarduerak egingo dituzten langileei jakinaraziko die nolako arriskuak izango dituzten, bai Segurtasunarentzat eta bai Osasunarentzat ere, eginkizun horiek egin bitartean, eta arrisku horiei begira zer babes-neurri eta zer prebentzio-neurri hartu behar dituzten azalduko die.

..... enpresak informazioa eskainiko du Hernaniko Udalaren instalazioetan langileek egin behar dituzten eragiketen edo lanen ondorioz Hernaniko Udaleko langileei edo parte hartzen duten beste enpresa batzuetako langileei eragin diezaieketen arriskuei buruz, eta halaber, Hernaniko Udalak banatutako informazioa zabalduko du bere langileen artean, bai laneko zentroak dituen arriskuei buruz, bai prebentzio-neurriei buruz eta bai larrialdi-kasuetan jokatzeko moduari buruz ere.

..... enpresak Segurtasun eta Osasun arloko heziketa eskainiko die Hernaniko Udalarentzat lanean arituko diren langileei, egingo dituzten eginkizun horiekin loturik.

..... enpresak Hernaniko Udalarentzat lanean arituko diren langileei lan horietarako egokiak eta beharrezkoak diren babes-baliabideak eskainiko dizkie; baliabide horiek, hain zuzen ere, norbanakoen babeserako ekipoetarako eta laneko ekipoetarako ezarri diren indarreko lege-irizpideak beteko dituzte.

..... enpresan Hernaniko Udalarentzat lan egingo duten langile guztiek horretarako egokia den kualifikazioa izango dute, eta bidezkoa baldin bada, behar bezala eguneratutako ziurtagiriak izango dituzte.

..... enpresak prebentzio-baliabide batzuk izendatuko ditu Hernaniko Udalaren laneko zentroan ezar daitezen, beharrezkoa izanez gero, Laneko Arriskuen Prebentziorako 31/1995 Legearen esparru arau-emailearen erreformarako 54/203 Legeak ezartzen duenaren arabera eta 39/1997 EDak eta hori geroago aldatu duen 604/2006 EDak ezartzen dutenaren arabera

..... enpresak berehalako prozedura idatziaren bitartez edozein ezbehar eta/edo istripuren berri jakinaraziko dio Hernaniko Udalari, baldin eta bertan lanean ari diren langileen osasunarentzat nola Hernaniko Udalaren instalazioetan egon zitekeen beste edozein pertsonaren osasunarentzat kaltegarria izan bada edo kaltegarria izan bazitekeen.

..... enpresak azpikontratazioak eginez gero, azpikontratatutako enpresek ere obligazio berberak izango dituzte, eta ..... enpresaren ardura izango da dokumentazioa biltzea eta hori betetzen dela zaintzea.

..... enpresak Prebentzio Zerbitzuen Araudian ezarritako baldintzak betetzen ditu eta prebentzio-zerbitzu hori berea bezala onartzen du, edo bestela, eginkizun horiek ..... Kanpoko Prebentzio Zerbitzuarekin kontratatu ditu

..... enpresak kontrol-lan bat egin du Hernaniko Udalarentzat jarduerak egiten dituzten langileen osasuna zaintzeko.

..... enpresak bere langileen artean istripu kopuruaren gaineko azterketa eta kontrola egiten du.
..... enpresak hitz ematen du zorrotz beteko dituela Laneko Arriskuen Prebentziorako 31/95 Legearen 24. artikuluan aurreikusitako koordinazio-neurriak eta enpresa-jardueren koordinazioaren alorrean 24. artikulua garatzen duen urtarrilaren 30eko 171/2004 E.D.

....(e)an, 202....(e)ko.....aren.....(e)an
Stua.....
NA.....